

Pompa 945 erakusketa Montehermoson, hiri-artearen bitartez Pilar auzoa artistikoki birgaitzeko proiektu komunitarioa

Gaur hasita, eta azaroaren 26ra arte, Montehermoso kulturunean Pompa 945 erakusketa izango da ikusgai, hiri-artearen bitartez Pilar auzoa artistikoki birgaitzeko proiektu komunitarioa, Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Saila garatzen ari dena, hiriko eragile sozial eta kultural garrantzitsu batzuen laguntzarekin, esaterako Arte eta Lanbide Eskola.

Lan hau duela urtebete hasi zen, xede zuelarik –Gizarte Politiken zinegotzi Peio López de Munainek esan duen bezala– *“zenbait are-teknika baliatuz, graffitia adibidez, Pilar auzoaren irudia zaharberritu eta hobetzea; Gasteizko zenbait artista eta hiri-kolektibo nabarmentzea; eraldaketa horretan bizilagunak eta hiri-kolektiboak inplikatzeko; eta gazteek eta beste kolektibo batzuek auzoko bizitza komunitarioan duten partaidetza sustatzea”*. Zinegotziak esan ditu hitzok aurkezpenean, alboan zituelarik Carlos Cordovilla kale-hezitzailea, Juan Arrosagaray Arte eta Lanbide Eskolako irakaslea eta Diego Beruete artista graffitigilea.

Pompa 945 proiektuaren motibazioa eta arrazoia konbentzimendu batetan oinarritzen da: *“Auzoetako kultur- eta arte-ekipamenduek nabarmen eragiten duten beste adierazle batzuen gainean, esaterako, biztanleen osasunaren, segurtasunaren edo hezkuntzaren gainean. Horrenbestez, ez da soilik esku-hartze artistiko bat, baizik eta, batez ere, esku-hartze komunitario eta sozial bat, zeinaren bitartez Pilar auzoa erreferente bihurtzen ari den hiri-artearen eta bertako bizilagunen eta eragileen partaidetzaren alorretan”*, esan du zinegotziak.

Hori guztia lortzeko, zenbait lan egin izan dira: proiektua garatzeko lekuak bilatu; artista, gizarte-eragile eta bizilagunekin ekin harremanak egin, partaidetza sustatzeko; eta hori guzti hori horma-irudi eta graffiti eta abar bihurtzea, zeinen bitartez hiri-gune narriatuak berreskuratu diren.

Montehermosoko erakusketak lan hori guztia laburbiltzen du grafikoki, halako moldean non horma-irudien eta horiek sortzen lagundu duten eta bizilagunen argazki eta bideoak ikus daitezkeen. izan ere, ekimen honek Pilarreko bizilagunak, ikastetxeak, dendak, zentro kultural eta soziokulturalak, udal zerbitzuak eta abar inplikatzeko lortu du.

Besteak beste, parte hartu izan dute Divino Maestro ikastetxeak, Francisco de Vitoria institutuak, Puerto Rico prestakuntza lantegiak, Arte eta Lanbideen Eskolak, Tejiendo Relaciones kolektiboa, zenbait artista partikularrek eta Udalaren zerbitzu batzuek, esaterako Bide Publikoko eta gazteriko udal zerbitzuek.

Montehermoso acoge la exposición Pompa 945, proyecto comunitario para la transformación social y regeneración artística del barrio de El Pilar

El Centro Cultural Montehermoso acogerá desde hoy y hasta el 26 de noviembre la exposición Pompa 945, un proyecto comunitario de transformación social y regeneración artística del barrio de El Pilar que está desarrollando el departamento de Políticas Sociales con la importante colaboración de agentes sociales y artísticos de la ciudad, entre los que figura la Escuela de Artes de Oficios.

Este trabajo se inicio hace un año con los objetivos de *“regenerar y mejorar la imagen del barrio de El Pilar mediante el empleo de diferentes disciplinas artísticas, como es el graffiti; poner en valor a artistas y colectivos urbanos de Vitoria; implicar al vecindario y a los agentes sociales del barrio en esta transformación y favorecer la participación de la población juvenil y de otros sectores en la vida comunitaria del barrio”*, ha explicado el concejal de Políticas Sociales Peio López de Munain, quien en la presentación de la muestra ha estado acompañado por Carlos Cordovilla, educador de calle, Juan Arrosagaray, profesor de la Escuela de Artes y Oficios y Diego Berruete, artista grafitero.

El proyecto Pompa 945 tiene su razón de ser y motivación en la certeza de que *“los equipamientos culturales y artísticos de un barrio inciden claramente en indicadores como la salud, la seguridad o la educación de sus habitantes. Por lo tanto, no se trata sólo de una intervención artística, sino que ante todo se trata de una intervención comunitaria y social que nos está ayudando a convertir El Pilar en un referente de arte urbano y de la participación de sus gentes y agentes”*, ha afirmado el concejal.

Para conseguir todo esto se ha venido trabajando en la localización espacios donde desarrollar el proyecto; en el establecimiento de contactos con artistas, agentes sociales y vecindario para promover su participación y en la plasmación de todo este trabajo en forma de murales, grafitis, etc... que han servido para regenerar físicamente espacios degradados.

La exposición de Montehermoso resume gráficamente toda esta labor, de tal manera que en ella se pueden ver fotografías y videos de los murales y de los vecinos, vecinas y artistas que han contribuido en su creación, porque en la iniciativa se ha implicado al vecindario de El Pilar, a sus centros educativos, establecimientos comerciales, centros culturales y socioculturales, servicios municipales, etc.

Así, se ha contado, por ejemplo, con la participación del colegio Divino Maestro, del Instituto Francisco de Vitoria, del Centro Ocupacional Puerto Rico, de la Escuela de Artes y Oficios, del colectivo Tejiendo Relaciones, de artistas a nivel particular o de servicios municipales como los de Vía Pública y Juventud.